




Euskadi %1,6 hazi zen bigarren hiruhilekoan

EAEko ekonomiaren hazkundea
Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: Eustat.

Eustaten kontu ekonomikoen aurre-
rapenaren arabera, **Euskadiko BPG %1,6 hazi zen aurreko urteko bi-
garren hiruhilekoaren aldean**. Era
berean, hiruhilekoen arteko termi-
noetan, hazkundea %0,5 izan zen,
aurreko aldiko erregistro berā, eta
dagoeneko hamabi hiruhileko me-
tatu dira tasa positiboetan.

Zerbitzuen negozio zifra %3,1 handitu zen

Zerbitzuen negozio zifra
Urte bakoitzeko maiatza. Indizea




Iturria: INE.

**Maiatzean, Euskadiko zerbitzuen
negozio zifrak %3,1 egin zuen go-
ra urte batetik bestera**. Tasa posi-
tiboetara itzultzeaz gain, indizeak
lortutako maila serie historiko oso-
an, maiatz batean, jaso den altuena
da. Era berean, sektoreko enplegua
%0,8 hazi zen aurreko urteko hil be-
raren aldean.



Industriako prezioek balio negatibotan jarraitzen dute

Industriako prezioen indizea
Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: Eustat.

Eustatek argitaratutako azken datuen arabera, **industriako prezioek %5,9ko jaitsiera izan zuten ekainean, aurreko urteko hil beraren aldean**. Horrela, hiru hilabete jarraian eman dituzte urte arteko tasa negatiboetan, energiaren prezioen bilakaeraren ondorioz (-%27,3).

Hoteletako gaualdiek gorantz jarraitzen dute

Hoteletan igarotako gaualdiak
Urte bakoitzeko ekaina. Milakoak



Iturria: Eustat.

Ekainean, hotel establezimenduetako gaualdiak %6,5 gehitu ziren aurreko urteko hilabete beraren aldean. Guztira 652.000 gaualdi baino gehiago jaso ziren, serie historiko osoan ekain batean izan den kopururik handiena baita.